



8-FUNTSEZKO JARDUERAK

8.1 Ekoizpena

Gure taldeak arduratuko da maskoten emozioak kolorez adierazten dituzten lepoko adimendunen diseinua eta fabrikazioa egiteaz. Horretarako, emozioak antzemateko sentsoreak eta LED teknologia integratuko ditugu, eta beharrezko probak egingo ditugu produktua ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko. Era berean, lepokoa kontrolatzeko erabiliko den aplikazioa garatuko dugu, eta etengabe eguneratuko dugu erabiltzaileentzat erraza eta praktikoa izan dadin. Prozesu osoan kalitate-kontrol zorrotzak egingo ditugu, emaitza fidagarria eta segurua bermatzeko.

8.2 Arazoak konpontzea

Gure proiektuan teknologia berritzailea erabiltzen dugunez, baliteke batzuetan arazo teknikoak sortzea, adibidez aplikazioaren eta lepokoaren arteko konexioa edo funtzionamenduan. Guk konpromisoa hartzen dugu bezeroei laguntza azkarra eta eraginkorra emateko, haien zalantzak argitzeko eta sortzen diren akatsak konpontzeko. Horrela, erabiltzaileen esperientzia ona bermatuko dugu eta gure produktuarekiko konfiantza sendotuko dugu.

8.3 Plataformako edo sareko jarduerak

Aplikazioak ondo funtziona dezan, gure taldeak datu-plataforma egonkor eta segurua mantenduko du. Gainera, gure komunitatea sare sozialen bidez sortu eta kudeatuko dugu, erabiltzaileen iritzia eta proposamenak jasotzeko. Aldi berean, marketing digitala erabiliko dugu bezero potentzialengana iristeko eta gure produktu berritzailea ezagutarazteko. Horrela, merkatuan presentzia sendoa eta aktiboa izango dugu.